




BARREN  
TOKIKOM

# Suaren argitara







# lea artibai

ikasketxea

## Elikagaien industriarekin lotutako ikasketetan lan aukera zabala dago

Elikagaien sektoreko enpresetan egiten diren lanen kontrola eramateko gaitasuna bereganatzen dute ziklo hau ikasten duten ikasleek. Laborategietako teknikari, I+G+b arloko teknikari, Ekoizpen prozesuko ikuskatzaile edo Kudeaketa sistemak ezartzeko arduradunak ere izan daitezke.



**Patricia Arina**, (Lekeitio, 1973). Nekazaritzako Ingenieritza egin ondoren Elikagaien Industriak zikloa ikasi zuen eta gaur egun Elikagaien Industrien arloan irakasle lanetan ari da.



**Jon Azkue**, (Lezama, 1989). Elikagaien Industriak zikloa ikasi ondoren, gaur egun DENTICI enpresan Kalitate ardurarekin lanean ari da.



**Veronica Calzado**, (Donostia, 1980). NORTINDAL enpresan lanean dago, Kalitateko kide bezala, IFS taldean, eta titulazio ofiziala lortzeko Elikagaien Industriak zikloa ikasten ari da.

## LANBIDE HEZIKETA **Matrikula data uztailaren 13tik 19ra**

### **Erdi maila**

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantenimendu elektromekanikoa

### **Goi maila**

- Administrazioa eta finantzak
- Automatizazioa eta robotika industrialak
- Mekatronika industrialak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Ekoizpen prozesuak eta kalitatea Elikagaien Industrian
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Web Alikazioen Garapena (2.maila)



**Markina Xemein**  
**946 169 002**  
**info@leartik.com**  
**www.leartik.com**



ABEL ARRIAGA



## “Erreleboa emateko ordua iritsi zaigu, Andoitz”

**D**uela bi urte etorri ginen BARRENEko atal honetara, eta orain joateko ordua iritsi zaigu. Gogoan daukat, idazten hasi ginenean, errefuxiatu andana zetorkigula Europara, gerretatik ihesi. Gu bagoaz, baina haiek oraindik ez dira heldu. Beti etortzen eta inoiz iristen ez diren hoientzat, gauzak gutxi aldatu dira hilabete hauetan.

Erreleboa emateko ordua iritsi zaigu, Andoitz. Gustura aritu naiz zurekin txioka. Batzuetan zozo, besteetan bele. Orokorrean, eroso. Jendeak kalean zoriontzen zaituenean, badakizu asmatu duzula. Isiltasuna, berriz, irakurleengana iritsi ez zaren seinale izan ohi da sarri. Edo irakurri ez gaituen seinale. Auskalo! Denetik egon da: batzuetan, inspiratuta; besteetan, kateatuta. Baina orokorrean, gustura.

1.600 karaktere luze hasieran, motz bukaeran. Jorratzeko gai zaparrada hasieran, kontatzeko gutxi bukaeran. Bertigoa

hasieran, erosotasuna bukaeran. Bi urte luze eta motz. Jendea gehiago asperrarazi aurretik, erretira gaitezen beraz. Aire berriei leku egin diezaiegun. Eskerrak BARRENI, emandako aukera honengaitik.

Gai asko jorratu ditugu denbora honetan: aldatu nahiko genituzkeen aferak salatu ditugu, gustuko ditugunak txalotu eta etorkizunerako nahiko genituzkeenak, aldarrikatu. Papelean, dena da posible; paperak, dena jasotzen du: iragana eta etorkizuna; bizitakoa eta amestutakoa. Baina oraina da benetan inporta zaiona eta oraina ezin da idatzi: bizi egiten da, egin egiten da. Eta egiten duguna gara. Kontua ez da zeren kontra edo alde gauden, zer egiteko prest gauden baizik. Saia gaitezen beraz, koherenteak izaten, egiten, ekiten, eragiten... ez da lan makala! Plazera izan da, Andoitz!



ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA



## “Agur esatia sekula ez jata gustau, eta gaur ere, ez dot uste esango dotenik”

**E**pa, Abel. Agur esatia sekula ez jata gustau, eta gaur ere, ez dot uste esango dotenik. Onartu bihar dizut 1.600 karaktere beti egin jatazela luze. Izki artian baiño hobeto moldatzen naiz zenbaki artian. Horregaitik miresten dittut idazkiak, korapillatsuak diran kontuak irakurtzeko eta ulertzeko errez jartzen dittuenak.

Esaten doguna egitten saiatzeko diozu, eta irratixan berriki entzundako pasarte bat etorri jata burura. Esatarixak samaritar onaren parabola zekarren gogora. Ume sasoiko apaiz batek eman ei zion bizitzako lezio haundixenetako bat. Samaritar onaren parabola hau ondo erakutsi ei zien: urkua laguntzeko prest egon bihar gerala beti, eta geure burua beste maitte bihar dogula. Horrek, gaiñera, esaten dogunarekin koherente

izatera garamatza eta esaten dogun hori ekintzekin berrestera. Ikkasle gehixenek apaizak emandako ikasgai hori ondo siñestuta ei zauken.

Kontua zera izan zan itxura danez: ikasliek esandakuaren kontrako zerbait eitten harrapau zebela apaiza. Orduan onartu bihar izan zaban apaizak bera ez zala samaritar on haura bezelakua eta gizartian oso zailla dala esaten debena eta egitten debena guztiz betetzen deben pertsonak topatzia. Zuk ezagutzen al dozu iñor, Abel? Nik ez. Indar haundixa bihar da horretarako eta nahiz eta ehuneko ehunian ez lortu, konforme nago zurekin. Saia gaitezen ahalik eta gehixen hurreratzin. *Portzierto*, Abel, azken konfesio bat eingo dizut: BARRENEko atal hau ez dot ixa sekula irakurtzen.

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ESKERRIK ASKO

Mikel De Pabloren sendiak eskerrak eman nahi dizkie Danborradako antolatzaillei eta CD Elgoibarko zuzendaritzari Trinitateetako danborradan jasotako omenaldiagatik. Mila esker!

**Mikel De Pabloren  
familiakoak eta lagunak**

### ► AGUR, ILUNPE

2017ko urriaren 10ean lau urte beteko lituzke Ilunpe Tabernak, gaur egun ezagutzen dugun bezala. Primerako jendea ezagutzeko aukera eman dit taska honek; betirako bihotzean izango dudana jendea. Era berean, bizitzarako oso baliagarriak izango zaizkidan balore eta esperientziak eramango ditut nirekin. Etapa hau bukatutzat emango dut bihar (ekainak 24, larubata). Dударik gabe, niretzako oso egun berezia izango da, eta nirekin ospatzera gonbidatzen zaituztet. Jai giroan murgiltzeko bisera, txano, txape edo antzerakoren bat buruan ekartzeko gonbitea egiten dizuet. Osagarriren bat ekartzen duzuen guztiok txupittoa doan izango duzue, eta hiru originalenek saria edukiko dute.

Eskerrik asko denbora honetan guztian hau posible egin duzuen guztioi. Muxu bat, eta besarkada bana! Maite zaituztet.

Besterik gabe, ondo izan.

**Mireia Huidobro Fauro**

### ► JEXUX ETA MIREN

Idatzi honen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu gurekin Mendaro Ikastolan hainbat urtetan egon diren bi pertsona erreferentziakori. Zoritxarrez, datorren ikasturtean ez ditugu Mendaron irakasle lanetan izango. Zoritxarrez diogu, profesional onak izateaz gain, pertsona apartak ere baditugulako. Beraien lanean guztiz inplikatu dira, eta zuzendaritzan egin dituzten urteetan, haien eragina nabarmena izan da, onerako. Hainbat eta hainbat proiektu martxan jarri dituzte, diseinatu dituzte eta ahalbideratu dituzte.

Euskaltzale eta euskaldun sutsuak izanda, euskararekiko maitasuna egindako ekintza eta hartutako erabaki guztietan islatu dute. Ezagun dute beraien mundua euskararen inguruan mugitzen dela, eta, horrek egiten duten guztiari eragiten dio. Askotan sentitu izan dugu be-

raiekin batera lanean ibiltzeko aukera eta horretarako plazera izan dugunok ikusi dugu zer nolako maitasuna jarri duten antolatu duten guztian; mimatuak eta maitatuak sentitu gara, eta sentitu dira gure umeak. Eta, uste dugu hainbat gurasoren izenean hitz egin dezakegula, ikastolan guraso izan direnen eta garenen eta doazen lekuko gurasoen izenean ere bai.

Haurrenganako agerturiko maitasuna eta kezka ere nabarmenak izan dira. Baita elkarbizitza sustatzeko eginko lan-keta ere: Ikasle izan dituzten guztiengan txertatu dute, gainera. Harro egon zaitzekete!

Ez zintuztegun besterik gabe joaten utzi nahi. Eskerrik asko bihotz-bihotzez egindako lanagatik; hutsune nabarmena utziko duzue ikastolan! Zorte on ibilbide berrian, eta ondo har zaitzatela zoazten lekuetan!

**Mendaroko guraso talde bat**

### ► ESKERRIK ASKO

Danborradaren antolatzailleok eskerrak eman nahi dizkizuegu parte-hartzaile guztioi, bai kideoi eta baita ekitaldiaz gozatzerako gerturatu zirenen guztioi ere. Zuek



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Eduarne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBARKO UDALA



LAGUNTZAILEAK:



MENDARO



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



gabe ez zen posible izango.

Aipamen berezia egin nahi diegu Udalari, CD Elgoibarri, Elgoibarko Udal Musika Bandari, Haritz dantza taldeari, Ignazio Bereziartua Musika Eskolari, ta-bernei, elkarteei, dendei... eta beste urtebetez danborradaz gozatzeko aukera posible egin duzuen boluntario guztioi.

Datorren urtean gehiago eta hobeto. Mila esker, eta zorionak guztioi.

Beti Elgoibar! Gora Elgoibarko danborrada!

### Elgoibarko Danborrada Atabal Elkarteak

#### ► DAGOKIONARI

Gutun honen bidez kexa formal bat aurkeztu nahiko nioke Elgoibarko Udal ilustreari, familia ugariei ematen dizkien diru-laguntzen harira.

Nabarmentzekoa da 2016. urtera arte, familia ugariek onura bakarra jasozten zutela: ondasun higiezinaren zergaren ordainagirian aplikatzen duten deskontua. Hori bai, Udalak zehaztutako diru-sarrereren baremoan sartuz gero.

2017an apur bat eskuzabalagoak izan dira, eta familia ugarientzako beste onura bat gehitu dute, beti ere, jakina, ezarritako diru-sarrereren baremo horretan sartzen baldin badira. Hala, zirkulazioko udal-zergan deskontu bat egiten hasi dira. Baina, logika guztien kontra, Udalak ez die onura horren berri eman onuradun izan daitezkeenei. Nonbait iruditu zaio nahikoa dela laguntza horren berri Euskal Herriko Boletín Ofizialean argitaratzea, onuradunek horren berri izan dezaten.

Espero zitekeen bezala, onuradun posible askok ez dugu diru-laguntza horren berri izan, harik eta martxoan Hirukidek familia ugariei bidaltzen digun argitalpena jaso genuen arte. Informazioa, baina, berandu dator tamalez, diru-laguntza hori eskatzeko epea urtarrilaren 31n bukatzen zelako. Eta zer diren kontuak! Berrito ere, diru-kutxa publikoak irabazi du, modurik inozoenean.

Orain bai; neure izenean, erakunde publikoen arteko koordinazio txarra sa-

latu nahiko nuke. Aurten, Atxutxiamaikan izena ematen duten umeentzako laguntzak ukatu dizkit Udalak, martxoan Trafiko Zuzendaritzan baja eman zen auto baten zirkulazio udal-zerga zor dudala arrazoituta. Esan bezala, baina, auto horri martxoan eman zitzaion behin betiko baja, nire senarra hil zen istripuan guztiz hondatu zenean. Istripu hura publikoa izan zen, eta oihartzun handia izan zuen, gainera, baina badirodi Elgoibarko Udalak ez zuela haren berri izan.

Benetan triste da familia ugariok eska ditzakegun diru-laguntza apurak hor nonbait galtzea, arrazoi burokratiko hutsengatik.

Leire Yarza Villarino

#### ► DENON

#### ARTEAN LORTUKO DUGU!

Amnistia Osoaren eduki politikoa-  
ren defentsa tinko eta fermua egingo dugu: euskal preso, iheslari, deportatu eta oro har, errepre-saliatu politiko guztiak baldintzarik gabe etxeratzearekin batera gatazka politikoa eragin zituzten arrazoiaren konpontze orokor gisa. Horregatik, Amnistia zentzu honetan lortzen ez badugu, gatazka bere horretan iraunen du. Horren guztiaren aurrean, kideon jarri oso argia da: Espainia eta Frantziaren inposaketaren aurka, eta gure aberriaren alde borrokan aritzeagatik zigortu dituzten militante politikoak direla aldarrikatuko dugu beti, eta ez dugula onartuko errepresaliatuen borrokaren ondorioak haietako bakoitzaren bizkar erortzea.

Hortaz, presoen politikotasuna azpimarratu eta aldarrikatzeaz gainera, haien egoerari eman beharreko irtenbidea erabat politikoa izan behar duela diogu, Amnistiaren aldarrikapenak jasotzen duen bezalaxe.

Ez dugu komunikatu hau bukatu nahi Inaki Bilbao Txitikito euskal preso

politikoa aipatu gabe. Joan zen maiatzaren 29tik greba egiten ari da independentzia eta sozialismoaren alde. Borrokalari zintzo eta kementsu honi gure miresmena adierazi eta besarkadarik kuttunena helarazi nahi dizkiogu.

Azkenik, Amnistiaren Alde eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak ekainaren 24an, 18:30ean, Bilbon deitutako manifestazio nazionalen parte hartzera dei egiten diegu nafar euskal herritar guztiei.

Eugenio Artetxe eta Mikel Alberdi

#### ERCANI MIGALES

*Elgoibarko Izarrak urtean zehar ekitaldi pila bat antolatzen dituelako euskararen normalizaziorako. Denok irabazten dugulako, eta euskara babestu egin behar dugulako; euskara berezia delako.*



**Zergatik merezi du  
Elgoibarko Izarrako  
bazkide izatea?**

## Joxean Egaña zuzendari izandakoa omendu dute IMH Sarien banaketa ekitaldian



Joa zen ostegunean banatu zituzten IMH sariak. Sari banaketa hasi aurretik, baina, Joxean Egaña hamasei urtez ikastetxeko zuzendari izan zena omendu zuten. IMHren sorreran parte hartu zuen Egañak 1985. urte inguruan, Jose Rejorekin eta Javier Lopezekin batera. Zuzendari gerente kargua, berriz, 2.000 urtean hartu zuen eta 2016ko uztailean arte iraun zuen karguan, hariak eta Ixaka Egurbidek ordezkatu zuen arte. Segidan, sari banaketari ekin zioten. Bederatzi sari banatu zituzten: lau banakako eta bost taldekakoak. Estreinako aldia izan da aurten ikasle taldeentzako sariak banatu dituz-

tela. Sari horien bidez ikasleek erronken bidez ikasteko egindako "ahalegina, elkarlana eta jarrera aipagarriak" nabarmendu dituzte.

Bakarkakoetan, Patxi Beitia Arriolak jaso zuen ikasle ohi aipagarrienari dagoen saria. Zubacor enpresako gerentea da Beitia. IMHren arabera, enpresako langileen parte-hartzea balioan jartzea sustatu du Beitiak, eta nabarmen egin ditu lanarekiko "konpromisoa", bereziki krisialdiari aurre egiteko orduan, eta "ekintzaitetasuna. Beitiak Fabrikazio Mekanikoaren Produzioaren Programazioko Heziketa Zikloa ikasi zuen IMHn,

eta ondoren, Ingenieritza Duala.

Beitiaz gain, beste hiru lagun ere saritu zituzten. Unai Madinagoitia oñatiarrari eman zioten ikasle aipagarrienaren saria. Mekanika Dualeko ikaslea da Madinagoitia. 300 euroko ikasketa-poltsa eta opari-bonua jaso zituen saritzat. Ikasle elgoibartar onenaren saria, berriz, Iñigo Astigarragak jaso zuen, Fabrikazio Mekanikoko ikasleak. Elgoibarko plaka eta 2017-18an langileentzako ikastaroa doan egiteko aukera jaso ditu. Azkenik, aipamen berezia jaso zuen Eneko Barkin ikasle azpeitiarrak, Eusko Skills olimpiadetan urrezko domina eskuratu izanagatik.

## Arrate Antonek irabazi du Txankakuaren mila euroko saria



Txankakuak mila euroko saria zozketatu du elkartearen 25. urteurrenaren harira, eta Arrate Anton izan da sariduna. Sariak bi baldintza zituen: mila euroak Txankakua elkarteko sei dendatan gastatu behar zituen gutxienez, eta hiru ordutan. Martitzen arratsaldean irten zen dendaz denda Arrate Anton, Txankakuako maskoten laguntzaz. Arrate Antonek etxeko guztienez opariak erosi zituen, egunerokoan erosketak egiten dituen dendetan.

Txankakuak, bestalde, herriko komertzioa sustatzeko beste kanpaina bat jarri du martxan. Hala, Txankakuako txartelarekin egiten den lehen erosketarekin, poltsa bat oparitu diote bezeroari, irailaren 30a bitartean. Era berean, salmenta egiterakoan, datofonoko tiketeen "Poltsa Opari" esaldia agertzen denetan ere oparitu dituzte poltsak.



## Ekainaren 28tik 30era egingo da aurten pintxo lehiaketa Elgoibarren, eta hogeita sei tabernak parte hartuko dute



lazko sarituak.

Pintxo lehiaketa antolatuta du Elgoibarko Udalak ekainaren 28, 29 eta 30 egunetarako. Bederatzigarren urtea izango da aurtengoa, eta hogeita sei tabernak parte hartuko dute: Gorbea, Ametsa, Usua, Mahats, Larre, Ibai-Ondo, Iturri, El Gaurtxo, Urkiola, Landa, Gabi, King-Kong, Kaia, Malape, Txarriduna jatetxea eta hotela, Maala, Pilon, Lanbroa,

Lerun, Mintxeta, Salento, Aterpe, Gran Siglo, Viento Sur eta San Roke. Pintxoa 1,40 euroan salduko dute, 19:00etatik 22:00etara, eta herritarrek euren pintxo gustukuena hautatzeko aukera izango dute. Izan ere, hiru sari banatuko ditu

Udalak: epaimahai tekniko batek izendatuko ditu pintxorik onena eta bigarren pintxorik onena, eta herritarrek tabernetan betetzen dituzten boto-orrien

zenbaketatik aterako dute

herritarren pintxorik gustukuena, Herritarren Saria jasoko duena. Elgoibarko Udalak esku-orri bat banatu du etxeetara, pintxo lehiaketaren inguruko jakingarri guztiekin, eta tartean, tabernariak propio lehiaketarako prestatuko dituzten pintxoaren ezaugarriak eta osagaiak ere jaso dituzte.

**Egin zaitez bazkide!**  
**Elgoibarko Izarra**

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus  
www.elgoibarkoizarra.eus



## Bi lanpostu eskaini ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez, iragarri du Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko teknikaria behar duela, ordezkapen bat egiteko. Jardunaldi osoko lana izango da eta urteko ordainsari gordina 31.010,17 eurokoa izango da. Bete beharreko funtzioak eta bestelako informazioa Lanbideren webgunean aurki dezakezue. Era berean, bake epaile posturako lagun bila ere badabilta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu denez. Bake epaile izateko betebeharrak eta gainerako informazioa jasotzeko: <https://ssl4.gipuzkoa.net/eus-ker-a/gao/2017/06/20/e1704379.htm>.

## Elgoibarko Institutuko ohorezko matrikuladun ikasleak

Amaitu dute ikasturtea Baxilergoan, eta oporraldian dira jada ikasleak. Argazkiko bost neska hauek Elgoibarko Institutuko ikasleak dira, espediente akademiko onena lortu dutenak. Nagore Bergara, Olatz Andonegi, Paule Aranberri, Naiara Mantzizidor eta Ana Zubiaurre dira.



# “Ameriketara ez naiz iritsi, baina alabak eraman nahi nau hara ere”

## Kontxita Azpiazu (MENDARO, 1923)

Uztailaren 20an 94 urte beteko ditu, baina ez du bere adin bereko askoren antzik. Duela hogeita bat urte ekin zion bidaiatzeari eta hamaika herrialde, “hamaika paraje dotore”, ezagutu ditu. Bazter askotan izan da, baina Mendaro parera iristean “arnasa sakona” hartzen du beti. “Izugarri maite du Mendaro”, dio haren alaba Maitek. Sasoiko dago. Eskilara hartuta, garbiketa lanetan harrapatu dugu.

- AINARA ARGOITIA -

### ◆ Gartzianeko alaba zara. Ze oroitzapen duzu umezaroaz?

Ume guztien moduko haurtzaroa izan genuen guk ere, baina hori bai, guri senda lan egitea tokatu zitzaigun ume-umetatik. Lanetan zaildutakoak gara gu. Heldu behar zitzaion guztiari heltzen genion. Ez zegoen beste erremediorik. Etxean ere horixe ikusten genuen, eta zer ikusi huraxe egiten dute umeek. Horregatik ez ditut ulertzen gaurko pintxo-pote eta poteo-kalejirak. Taberna eta denda izan genituen guk, eta mugimendu handia izaten genuen. Bodak, jaunartzeak eta enparauko denak gurean egiten ziren orduan Mendaron. Akordatzen naiz baserritarren bat ezkontzen zenean nola etortzen ziren idiekin eta gurdiarekin etxe aurreraino; senargaien arreoarekin. Sei neba-arreba izan gara gu, eta aita nik 22 hilabete nituenean hil zitzaigun. Atera kontuak ze martxa atera behar izan dugun! Gaur moduan, ala? 23 bat urtera arte eskolan eta bitartean, jolas eta jolas? Orduan ez zen halakorik. Jolasean ere ibiltzen ginen pilotan eta futbolean, hemen, Gara-gartzako elizpean eta plazan. *Marimutil* deitzen zidaten. Beste garai bat zen.

### ◆ Aldatu dira bai, garaiak, baina ‘Marimutil’ eta halako esanak ez dira desagertu guztiz.

Niri berdin zitzaidan, baina, e! Beste asko beste banintzen gainera! Eta gainera, jolasak dira jolastu nahi direnentzat.

### ◆ Umetan berezi ikusten zintuzten, eta zahartzarora ere ezin esan berezia ez zarenik. Munduan aldenik alde ibilitakoa zarelaren entzun dut, eta jarraitzen duzula bidaiatzen.

Paraje asko ezagutu ditut, bai, eta hori berandu ekin niola atzerrira bidaiatzeari, 70 bat urterekin. Orain hogeita bost urte hil zitzaidan senarra eta gerora egin nuen atzerrirako lehen bidaiak, alaba eta suinarekin. Askok gustatzen zaie bidaiatzea eta haiekin ibiltzen naiz hara eta hona, esaten didaten lekura. Europa ia osoz ezagutzen dut. Frantzia hainbat aldiz izan naiz, Parisen,



*Kontxita Azpiazu, Egipton, piramideak atzean dituela.*

Normandian, Loira bailaran...Italian ere egona naiz, Erroman, eta Portugal eta Alemania iparraldetik hegoaldera pasatu ditut. Egona naiz Hungrian eta Turkian ere, Kapadozian-eta. Kapadozian globoan aiereratzeko plana egin genuen, baina azkenean, eguraldiagatik, ezin izan genuen. Austrian ere egon naiz, Tirol eskualdean eta inguruetan. Horrenbeste leku bisitatu ditut, gogoan ere ez ditudala denak. Egipton ere izan nintzen, 80 urte ondo beteta (Hara joateko atera zuen pasaportea) eta Kanariar Uharteetan ere bai. Bai, badakit Kanariar Uharteak izatez ez direla Afrika, baina han bertan daude. Gamelu gainean ere ibili nintzen Kanariar Uharteetan, atzera botatzeko moduko usaina duten arren. Espainia, ia oso-oso ezagutzen dut. Hainbeste ibili naiz, ahaztu ere egiten zaizkidala erdiak, baina hor dituzu albumak ar-



gazkiak ikusi nahi badituzu. Ameriketara ez naiz iritsi, baina alabak eraman nahi nau hara ere. Ikusiko dugu. Nik esaten diet ez naizela gehiago irtengo, nahikoa ikusi dudalako, baina ezetz esaten didate eta izango da beharbada ikusi beharreko beste zerbaite ere.

♦ **Zure adineko asko etxe bueltan pasiaran edo karta-jokoan ikusi eta irudikatzen ditut. Eta zu, berriz, hor, 90 urte ondo be-teak eta hara-hona hegazkinean.**

Eta sekula ez dut arazorik izan, gainera, bidaiak laguneri segitzeko! Alaba eta suina iritsi diren leku guztietara ailegatu naiz ni. Ikusi beharreko guztiak ikusi ditut. Plana eginda ematen didate beti, eta beti asmatzen dute. Niri ez dit ardurak nora joan, munduan bazter guztietan daudelako leku izugarriak. Jendeak askotan esaten du hemen besteko lekuri ez dagoela kanpoan, baina aii! ez dakite ondo! Ezjakintasunak egiten du hori! Hemen ondo bizi garela? Bai, jakina, baina hemen besteko parajerik ez dagoela? Gezurra galanta.

♦ **Imersoren plana moltz gelditzen zaizu zuri orduan?**

Behin joan naiz Imersorekin, Benidormera. Lagun batekin joan nintzen, baina ez zitzaidan batere gustatu. Benidormen aldean leku politak badaude bazterretan. Hango jende pila hura... ez zitzaidan gustatu. Lagun bila joaten dira asko hara, *a ligar*, eta nik ez dut halako lagunik behar. Ez dut ulertzen, gainera, urtero leku berera joate hori. Munduan dauden leku guztiekin beti leku berera, gauza berdinak ikustera? Ez, ez; Ni neu ez. Hori bai, Benidormen ere gelditu ere egin gabe ibili ginen gu, batera eta bestera. Ondoz txiki bat ere izan nuen han, mareo bat, eta medikuak eman zizkidan pilulek kalte egin zidaten gainera. Laga nituen, eta fin! Ez naiz ni medikuarenera joan zalea. Katarro txikienarekin ere joaten dira batzuk, baina nik badakit zer erantzungo didan hemengo edo hango mina daukadala esanez joaten banoiz: 'Zer nahi duzu ba 93 urterekin?'. Hori entzutera ez noa.

♦ **Ikusi dituzun leku guztietatik bada sekula ahaztuko ez duzunik?**

Zer esango dizut ba? Dena gustatzen zait barrer! Ikustea merezi duen dena ikusita bueltatu gara gu kanpora joan garenetan. Konforma erraza naiz ni, gainera. Konforma ezin hori edo erdietan disgustura egote hori oraingo kontuak dira. Berdin aspertze hori. 'Zer moduz?' galde-tzen diozu guraso gazte hauetako bati eta "aspertu xamar" erantzuten dizu. Nola aspertu daiteke, baina, gaur egun dauden aukera guztiekin! Eta berdin umeekin. Aspertu egiten ei dira sarri. Ezin dezaket ulertu. Nik ez daukat aspertzeko astirik ere! Eguneko minutu guztiak lotuta dauzkat. Orain ikusten ditut gazteak tabernan eta entzuten diet ez direla inora iristen... Aiii, nola iritsiko dira bat. Pintxo-potea eta trasteak!. Horrek

ez ditut ulertzen nik. Hori gaizki erakustea da. Zer ikusten dute umeek? Alkohola edatea normala dela eta sustatu egiten dela. Zer esango diegu guk gero, ez edateko?

♦ **Etxeko kontu guztiekin ere zeu bakarrik konpontzen ei zara.**

Bai, nik ez dut inor nahi etxean ni neu gauzak egiteko gauza naizen bitartean. Alabak esaten dit hartzeko norbait, baina zertarako? Etxeko lanak egitea moduko gimnasiarik ez dago.

♦ **Gai izan behar da, baina, zure adinean.**

Gauza bat esango dizut. Osasun kontuak alde batera lagata, iruditzen zait adineko askok ez dutela euren burua behar bezala zaintzen; lagata ikusten ditut. Ordubetarako errehabilitaziora joan eta gainerako ordu guztiak sofan jarrita telebista ikusten pasatu? Ez. Gorputza berez da alferra eta laga ezker, zer esanik ez. Telebista da gaur egungo gaitza. Tontotu egiten du jendea. Ibili egin behar da, mugitu, eta horretarako ez dago ordaindu beharrik, ez dago gimnasio beharrik. Etxeko lanak egitea moduko gimnasiarik ez dago. Beti ez da gogorik izaten, jakina, baina gorputzari kontra egin behar zaio. Jarri egutegi bat, eta bete. Telebista eta igo-gailuak... zenbat kalte! Ostiraletan egiten dut nik garbiketa sakona etxean. Minez egonez gero, laga hurrengo egunerako, bai baina ekin biharamunean! Egin lanak eta irten kalera gero, sofan jarri eta eguna jaten pasatzeko arriskuari ihes egiteko. Orain, zu joan-dakoan, eskilara hartu eta errezel guztiak kendu behar ditut garbitzeko, eta albora egindako alfonbrak jarri gero.

♦ **Erorketak saihesteko tailerra egin berri da Mendaron 67 urtez gorakoentzat. Eskilara alboratu, alfonbrak kendu... Han entzun balizute eskilara hartuta zabilzala etxean...**

Joan ere ez ni hara! Norberak daki zertarako gai den eta zertarako ez. Eta jausi ezker zer egingo dugu ba! Gazteagoak ere jausten dira, aizu!. Orain, kontu bat: ni bestean gai diren asko ez dituzu ikusiko, ez, halako lanetan. Esan dizut lehen ere: alferkeria berezkoa du pertsonak, baina gure gorputzak mugitzeko eginak daude, ez beti luze etzanda egoteko.

*Txekiar Errepublikan.*



# Ezkontza gehigarria



WWW.JOSEBAJATETXEA.COM  
EAKES\*\*K7/JOSEBAJATETXEA

Aizkibel 10- Azkoitia  
josebajatetxea@hotmail.com  
943853412



Joseba  
Jatetxea

J O S E B A J A T E T X E A

Kalitatezko produktuetan  
oinarritutako euskal sukaldaritza  
XVI. mendeko Floreaga Jauregian,  
Joseba Olaizolaren eskutik.

250 lagunentzako jantokiarekin,  
maitasun haundiz hartuko  
zaituztegu

2017-2018 ezkontza denboraldian,  
eskaintza eta sorpresatxo ugari  
zuen zain





# 2018rako tendentziak

**Gaur egungo ezkontzak desberdinak dira aspektu askotan. Ez ditugu ohiko ezkontza tradizionalak nahi, eta bakoitzak bere ukitu pertsonala eman nahi izaten dio, egun hori intimitatean bizitzeko. Egungo ezkontzetako gonbidatuen zerrenda garai batean baino laburragoa izaten da normalean, eta ezkontza familia-ospakizuna izan ohi da askotan.**

**L**ekuari eta dekorazioari dagokionean, naturak jarraitzen du gustukoena izaten, eta gastronomiari dagokionean, berriz, sukaldaritza berritzailearen alde egiten dute askok, menuan gustu guztietarako zaporeak sartuz.

## LORAK.....

Lore sortak estilo askotarikoak izan daitezke: batetik, *total white* estiloa daukagu. Emaztegaiaren soinekoarekin bat egiteko txuri koloreko lore mota desberdinak erabili daitezke: margaritak, tulipanak, orkideak... Ezkontza nekazari gune eta estiloan ospatzen denean, lore sorta basatiagoak erabili daitezke, ziridun lorak edo kardoak esate baterako. Beste estilo ausart bat kolore biziko lore-sortak dira. Lore urdin edo gorriak ez dira oharkabean pasako. Dekoraziorako ere erabiltzen dira lorak. Lore zintzilikarioak, gortikak edo ur-jausi estilokoak gonbidatu guztiak harrituko dituzte. Modu dinamikoan kokatuz gero, guneari altura emango dio. Lore sortarekin bezala, aukera desberdinak daude dekorazio loretan ere, beti ere, ezkontzaren estetika eta estiloa zainduz.





# estetikaalire

Upaiz zaharra, 1 behea - Tel.: 943 531 636 - Elgoibar - [alirestetico@hotmail.com](mailto:alirestetico@hotmail.com) - [www.estetikaalire.com](http://www.estetikaalire.com)

## Zatoz eta prestatuko zaitugu!





## ARAMBURU

BIFIXIDENDA

San Frantzisko, 26  
Tel./faxa: 943 742 635  
Elgoibar





Hezandegia

# Jurdes

Pedro Migel Urruzuno kalea, 10 - 943 256 105

## Mimoz landutako orrazkerak





## ARGAZKIAK .....


Ezkontzaren argazki erreportajea egiteko natura guneak aukeratzen dira bereziki. Garrantzitsuenak erretratuak modu naturalean ateratzea da, posatu artifizialik gabe. Berehalakotasuna eta freskotasuna transmititzea oso garrantzitsua da.

Ezkontzako erretratuei dagokionean indarra hartu du azkenaldian photocall-ak. Gune alai bat izaten da, eta gonbidatu guztiek modu berezian erretratuak ateratzeko aukera izaten dute, modu txukun eta profesionalean. Joko handia ematen du.

## EMAZTEGAIAREN SOINEKOA ETA ORRAZ KERA.....



Emaztegaiaren soinekoa ezkontzako elementu garrantzitsuenetakoa izaten da. 2018an kalitate handiko ohialak izango dira nagusi. Sirena edo printzesa estiloko soineko tradizionalak ikusiko ditugu bereziki, baina oso dotoreak dira baita ere bolumen handiko gona daukaten soinekoak. 2017an transparentziak indar handia hartu zuten, eta 2018rako ere ikusi izan dira moda desfileetan, baina bizkarrak hartzen du protagonismoa oraingoan. Koloreari dagokionean erabateko zuria da oraindik ere aukeratuena, baina nude edo xanpain koloreak ere aukera interesgarriak dira. Orrazkerari dagokionean, trentzak dira protagonista nagusiak, batutako ilean eta baita soltean ere.




**ileapaindegia  
estetika**

**943 747 4 21**

San Bartolome, 33 behea - ELGOIBAR

**NOA**

 Noa Estetika

**Kala**  
LORADENDA

San Frantzisko 24, Elgoibar - 943 744 516  
kala.loradenda@gmail.com



San Ignazio, 1 - ELGOIBAR  
Tel: 943 55 17 45  
jasone@jasonesg.com  
www.jasonesg.com

**Jasone**  
Zerbitzu Gaitheak

Ezkontza  
erajinop garatzen

Sartu,  
aukeratu  
eta  
eraman itzazu!!

Xabi & Ane

**Gizonezkoen ile-apaindegia**  
JOSE ANTONIO

Zerbitzu bakoitzean, toalla eta erabili eta botatzeko bizar-xafiak ere sartzen dira, higiearen gaineko araudiak eskatzen duena beleaz.

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar txukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Kontsultatu hemen informazioa:  
[www.peluqueriajoseantonio.com](http://www.peluqueriajoseantonio.com)



Errosario kalea, 30 - Elgoibar  
Tel: 943 741 492



## GONBIDAPENAK.....

Papera da euskarri nagusia ezkontze-tako gonbidapenak egiteko. Pastel koloretan eginiko marrakzi simple eta pertsonalizatuak oso egokiak izaten dira, lore edo urre koloreko elementuekin lagunduta. Berde kolorea tendentzia bihurtu da gonbidapenetan.



Paperezko euskarriaz gain, gero eta gehiagok sortzen dituzte webguneak, euren ezkontzari buruzko informazioa emateko. Gonbidatuek edozein lekutatik kontsultatzeko aukera izango dute. Ezkontzaren ondoren ere mantendu daiteke webgunea, egun horretako argazkiak gonbidatuekin konpartitzeko.

Teknologiak bere lekua hartu du ezkontzetan, eta sinadura liburua ere tablet-ak ordezkatu du.

# 50

urteurrena

50 urte zuekin bidaiatzen

2017-2018 EZKONTZAK!

Zugan pentsatu dugu,  
itzulerako bidean pentsa ez dezazun!

Pol. Ind. Igarualdea, 27  
20850 Mendara - Tel. 943 741 677  
[www.dariobus.com](http://www.dariobus.com) - [clientes@dariobus.com](mailto:clientes@dariobus.com)

KANTABRIA  
Jatetxea

EZKONTZAK  
BATAIOAK  
JAUNARTZEAK

[www.kantabrijatetxea.com](http://www.kantabrijatetxea.com)  
[kantabria@kantabrijatetxea.com](mailto:kantabria@kantabrijatetxea.com)

RESTAURANTE KANTABRIA  
KANTABRIA JATETXEA

Arrate Gaina, 4 - 279 postakutxa - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 121 262



## MENUA.....

Elikadurak gero eta garrantzi handiagoa dauka gure eguneroko bizitzan, eta ezkontzetan ere isladatu da hori. Gero eta gehiago aukeratzeko dira kaloria gutxiko elikagai osasuntsuak, sasoiak sasoiako produktuekin prestatutakoak. Ez da derrigorrezkoa menua erabat berritzailea izatea, baina coctel edo gourmet estiloko menuak oso egokiak dira. Buffet estiloko menuak aukeratzea ere badago, modu horretan gonbidatu bakoitzak aukeratu dezake zer jan. Kasu horretan, gainera, ez da buruhausterik sortuko gonbidatuak mahaietan kokatzerako orduan, zutik jango dutelako.



Dena den, gure kulturaren oraindik jendeak nahiago du eserita jatea.

Berrikuntzak sartzeko ongi-etorri coctail unea izaten da egokiena. Aukera zabala dago gai horretan. Pintxo txikiak primerakoak dira une horretarako. Gogoratu gonbidatuak zutik egongo direla une horretan, eta hobe da mokadu txikiak eskaintzea, une berean jan eta edan modu errazean egin dezaten.


Bai coctailerako eta baita menu nagusirako ere, sasoiak eta bertako produktuak aukeratu daitezke. Jende askok menu nagusiaz gain, dantzaldiaren osteko afari-aurrekoa eskaintzen dute. Une horretarako catering zerbitzuak kontratatzea izaten da egokiena, pintxo edo ogitarteko txikiak eskainiz.

Azkenaldian indarra hartu duen beste tendentzia bat mahai gozo edo candybar deritzona da. Gonbidatuak aho-gustu gozoarekin geratzeko aukera paregabea.

**autocares  
Revert**



**Kalitatea eta zerbitzu ona, eskura**  
Ard. R. Muguruza, 29 - 5ª A - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa  
Tel.: 943 741 863 - Faxi: 943 531 386  
autocaresrevert@gmail.com  
www.autocaresrevert.com



**AGURTZANE**  
c.b.

**Fotodepilazioa  
egiten dugu**

Santa Ana, 18  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 741 864

*ileapaindegia*

# Idama

- Ileanpaindegia ● Estetika ● Solarium-a
- Ileen azterketa mikroskopikoa
- Mikropigmentazioa

**Orain, laserra eta mediku  
nutrizionista dauzkagu!**

*Zatoz eta galdetu!*

Antonio Arrilaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik) - Tel.: 943 744 026



# Belaustegi Baserria



JATETXEA

San Migel Gaina z/g

Tel.: 943 743 102

*18. urteurrena*

**Eskerrik asko elgoibartarroi!**

Portxe-jardineko haiman bazkaldu edo afaltzeko aukera.







## EZKONTZEKO LEKUA.....

Lorategiak espazio interesgarriak dira. Jatetxe askok dituzte gaur egun ezkontzak naturan ospatzeko guneak. Gune natural eta erosoak dira, eta ezkongaiak etxean moduan sentitzen dira. 2018rako, bestalde, rock estiloa ari da indarra hartzen. Ukitu basatia hartuko du ezkontzak. Musika eta dekorazio elementuak ondo aukeratu behar dira. Oso garrantzitsua da ezkontza gunea ezkongaien nortasunarekin bat egiten duten elementuekin dekoratzea.



Ileapaindegia  
 Aurpegiako tratamenduak  
 Manikura- Pedikura  
 Masajeak  
 Aurpegiako azal garbiketa  
 Makillajea  
 Depilazioa (jagilari bero eta epela)  
 Depilazio elektrikoak  
 Gorputz tratamenduak  
 DUBADUN SOLATUM-A

# DONNA

ileapaindegia

943 744 388  
Palmareta, 21 Behera

# Imprenta Arrillaga

Inprimaketa: Offset  
 Digitalean

Ezkontza gorbidapenak  
 Hileta origarriak  
 Rikuta txartelak  
 Kartelak - atzetak  
 e. g.

Fotokopiak  
 Koloretan  
 Txuri-beluzean

Trenbide Kalea, 13 - behea (Frente parking Estacion Tren)  
 Tel.: 943 74 01 87  
 e-posta: arrillagasi@outlook.com

# HAIR'S

## ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea  
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN  
 JUBILATUEN  
 EGUNA:

- Orraztu 9€
- Garbitu, moztu eta orraztu 18€



# Muruamendiaraz

1935etik gozogintzan

[www.muruamendiaraz.com](http://www.muruamendiaraz.com)

Zure ezkontza eguna gozatzeko zatoz Muruamendiarazera!

- Etxez etxeko/enpresetarako banaketa asteartetik igandera Elgoibar eta Mendaron.
- Web orrian online erosteko aukera.



1946

Azpilgoetako erramu-arbolaaren adar batzuk jausi eta bi auto hartu zituzten azpian eguazten goizaldera Mendaron, eta badaezpada, beste hainbat adar ebagi zituzten Eibarko suhiltzaileek. Albisteak oihartzun handia izan zuen Mendaron, izan ere mendarorrek oso estimutan duten arbola da, itzal handikoa. Jose Maria Linazasoro zenaren lur-sailetan ezagutu dute beti arbola herritarrek eta useltzen hasita egon daitekeen usteak penatuta laga ditu. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko erramu-arbola handienetakoa da Mendarokoa eta babestuta egon ez arren, herritar bat baino gehiagok eskatu zuten eguaztenean babesteko neurriak hartzeko. Arbolari buruz galdezka hasi eta argazki zahar hau iritsi da gure eskuetara. Rosamari Arriolak laga digu erretratua. 1946. urtekoa da, eta argazkian Rosa Mari bera ageri da aitarekin, Juan Arriolarekin, arbola aurrean. Aitortu du Azpilgoetako erramu arbola oso estimutan duela eta horregatik karino bereziz gordetzen duela argazki hau ere.

2017







# Ongi etorri, uda!

**Iritsi da uda. Eguaztenean, ekainaren 21ean, ospatu genuen udako solstizioa Ipar-hemisferioan, udaberriari agur esan eta udan sartzeko eguna. Eta udagoienari ongietorria emateko, Sallobente-Ermuaranen elkartu ziren Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak egindako deialdira batu ziren elgoibartarrak. Europako tradizioak, baina, gaurko gauarekin, San Joan gauarekin, lotu ohi du udako solstizioa kristautasunaren eraginez, eta gaur ere, dozenaka su piztuko dira gure bazterretan. Elgoibarren bi leku izendatu dituzte horretarako: Santa Ana kale barrena eta Alcorta enpresara joateko bidegurutzea. Mendaron, berriz, udaletxeko plazan bertan piztuko dute sua. Argazkiak eta bideoak: [barren.eus](http://barren.eus)**

- AINARA ARGOITIA -

U sadioak dio, eguzkiak, bizitzaren jainkoak, goia jotzen duela ekainaren 21ean eta gizakion bizimodua erraza goa egiten duela horrek, eguzkiak ordu gehiagoz argitzen eta berotzen gaituelako. Euskal Herrian aspaldiko garaietatik ospatu izan da udaberriatik udarako saltoa, baita kristautasunak udako solstizioa San Joan bataiatzailearen figurarekin lotu eta ekainaren 23an ospatuko zela esan aurretik ere. Eta sua eta ura ziren eta dira gaur ere solstizioetako eta berdin ekinozioetako

ospakizunetan erabilienak izan diren sinboloak. Hain zuzen ere, suaren bueltan elkartu ziren dozenaka eta dozenaka lagun eguaztenean, Sallobente-Ermuaranen, dantza egin eta urtean zehar izandako traba, kontu ilun eta gainerako txar guztiak erretzeko eta garai berri bati hasiera emateko. Horixe baita tradizioak esaten duena.

19:00ak pasatxoan abiatu ziren Maalatik Sallobente-Ermuaranera, eta han maskaren eta lepokoien tailerra egin eta afari-mo-





kaua egin ostean, 22:00ak aldera piztu zuten sua. Magikoa izan zen une hori, ohi legez. Kantua, dantza, zuzeneko musika, ipuinak, eta izpiritu txarrak uxatzeko erritoak egin zituzten suaren argitara, jai giroan, eta urtean zehar gertatu zaizkien txar guztiak eraman eta etor daitekeenetik babesteko suaren gainera salto ere egin zuten hainbatek.

### MENDARON

Akerren segizioak piztuko du Mendaron San Joan sua, eta Akelarre baten bueltan ospatuko dute San Joan gaua. Ludotekako eta Gaztelekuko haurrek eta haietako zenbaiten gurasoek parte hartuko dute akelarrean. Trinitatetik abiatuko dute kalejira 22:00etan, eta kandelen argitara eta musikaz lagunduta San Jose plazarako bidea hartuko dute, han buelta eman eta Herriko Enparantzan bukatzeko.

Akerrek piztuko du sua, plazan. Ordurako, plaza ilun-ilun egongo da, kaleko argiak ere itzaliko dituztelako eta suaren argitara osatuko dute ospakizuna. Ondoren, su-garrak txikitu ahala, gainera salto egiteko aukera ere izango dute herritarrek.





*Dantzan.eus atariko lagunek Altzolako hainbat argazki zahar eman dituzte argitara eta haien inguruko azalpenak ere bildu dituzte [www.dantzan.eus](http://www.dantzan.eus) webgunean.*

## ALTZOLA EZ DA IZAN ZENA



San Joan gaua oso bestela ospatzen zuten garai batean Altzolan. Hala ekarri du gogora Arantza Arrietak, eta horren froga argitaratu du Dantzan.eus atariak bere webgunean ([www.dantzan.eus](http://www.dantzan.eus)). Aurten, ez da San Joan ospakizunik izango Altzolan, baina urte askoan sona handia izan zuten sanjoanek Elgoibarko auzo horretan. Altzolako bainuetxe atarian 1950eko hamarkadan egindako hainbat argazki dira horren erakusle. Sanjoanetako soka-dantzako irudiak dira ustez, Marin izeneko argazkilariak egindakoak. Aurraskua eta atzeskua ageri dira dantzan horietako argazki batean. Hasierako soka gizonetakoek osatzen zuten eta gero, emakumeak gonbidatzen zituzten dantzara. Arantza Arrieta berak lagundu die *Dantzan.eus*-ekoei argazkietan ageri diren lagunak identifikatzen, eta haien artean daude Karmelo Isasti eta Jose Luis Arozenak, Sabin Lariz, Antonio Landa, Mari Tere Landa, Garbiñe Bioin, Jose Ramon Etxaniz, Maria Dolores Landa, Alfredo Garcia, Milagros Landa, Pako Oñederra, Maria Teresa Arozena eta Jose Lariz.

Arrietak azaldu du "jai handiak" izaten zirela sanjoanek Altzolan, eta hala jaso dute *Dantzan.eus*-ekoek ere, Karmele Etxabe elgoibartarrari hartutako adierazpenetan. Hiru eguneko ospakizunak izaten ziren, ekainaren 23an eta 25era artekoak eta jende ugari batzen zen Altzolara, Elgoibartik eta Mendarotik bereziki. Ekitaldi ugari izaten zirela oroitu du Arrietak, eta dantzak gaur ez besteko garrantzia izaten zuela orduan. San Joan bezperan auzoko mutil gazteek basotik ekarritako arbola sartzeaz batera hasten zituzten jaiak, iluntzean, eta ondoren, ilundutakoan, sua pizten

zuten errekan dagoen lur sailtxoan, duela gutxira arte egin izan duten moduan. San Joan egunean, berriz, prozesioa izaten zuten goizean, eta emakumeek lore-sortak eramaten zituzten mezatarara, bedeinkatzera. Meza ostea, herri-kirrol saiok jantzen zuten. Bertsolariak ere izaten ziren kantuan, meza-oste hori kantuz girotzen, harik eta erromeria hasten zen arte. Jaietako hirugarren egunean, San Joan Txiki egunean, sokamuturra izaten zen goizean goiz, eta txanalen arteko estropadak eta bizikleta karrerak ere izaten zuten tarte bat egitarauan. Eguedian, bainuetxeko aurreko plazan elkartzen ziren auzoak, soka-dantza dantzatzeko. Eguna erromeriarekin amaitzen zuten. Felix Aran-



zabal *Angiozarko itsua soinu-jole* ezagunak alaitu zituen urte askoan sanjoanek Altzolan, baina sanjoanek orduan zuten indarra nolakoa zen nabarmentzeko, Arantza Arrietak oroitu du Elgoibarko Udal Musika Bandak eta Ansolatar txistulariek ere jo izan zutela, behin baino gehiagotan.




## Nahaste Borraste proba herrikoia ekainaren 30ean jokatuko dute



**N**ahaste Borraste proba herrikoia 33. edizioa aurkeztu zuten martitzenean. Gaur zortzi, ekainaren 30ean, jokatuko da aurtengoa. Kimetz Elkarteak antolatzen duen kirol proba 19:00etan hasiko da Kalegoenen. Partaideek hiru probatan lehiatu beharko dute: zazpi kilometro inguru egin beharko dituzte bizikletan lehenengo, ondoren 400 metro egingo dituzte korrika 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta, eta azkenik, 1.500 metroko ibilbidea osatu beharko dute saltaka. 16 urtetik gorako edonork parte hartu dezake. Izena emateko, proba hasi aurretik joan beharko da Kimetz elkartera. Iaz, Iñigo Larizek irabazi eta errekorra ezarri zuen, 17 minutu eta 34 segundoan. Gainera, Nahaste Borrasten lortzen zuen seigarren garaipena eskuratu zuen. Hala, Martin Dominguez berdindu zuen garaipen kopuruan, hark ere sei alditan irabazi baitu proba berezi hau. Emakumezkoetan Ainhoa Lendinez izan zen bizkorrena iaz, 20:54ko denborarekin. Lendinezek 11 alditan irabazi du Nahaste Borraste.

## Juan Carlos Canas nagusi Espainiako Automodelismo Txapelketan

Espainiako Automodelismo Txapelketako proba puntuagarria jokatzen aurreko asteburuan Mendaroko Ospas-Gaineko zirkuituan. 1/8 TT ECO modalitateko auto gidatuak lehiatu ziren eta Juan Carlos Canas andaluziarra gailendu zen. Bartzelonako Jaume Figuls sailkatu zen bigarren postuan eta Borja Hernandezek egin zuen hirugarren. Avar Eztanda elkarteak auto gidatuen erakustaldia eskainiko du Mendaron uztailaren 10ean.



## Pala Txapelketako finalak jokatuko dituzte, gaur

Emakumeen binakako 6. pala txapelketeta eta gizonen 2. pala txapelketetako finalak jokatuko dituzte gaur, 18:15etik aurrera, Kalegoen plazan. Emakumezkoen finalean Nerea Irusta eta Aintzane Arizmendi elgoibartarrek Maite eta Iratxe Barruetabeña ahizpa mutrikuarren aurka jokatuko dute. Erri-faren zozketa egin ostean hasiko da gizonen finala. Kepa Arrizabalaga eta Julen Guenetxea elgoibartarrek Arroa Beheko Jokin Artetxek eta Zumaiako Josu Salegik osatutako bikotearen aurka jokatuko dute.





## Aritz Iriondo epaile elgoibartarrari elkartasuna adierazteko ekitaldia egin dute eraso zuten lekuan

**B**ailarako Futbol 7 Txapelketako partida batean epaile lanetan ari zela, Aritz Iriondo 18 urteko epaile elgoibartarrak txartel gorria atera zion Eibarko Sobras Crew taldeko jokalaria bati. Jokalariak ez zuen ondo hartu erabakia eta txartela lurrera bota zion. Iriondo txartela lurretik jasotzeko makurtu zen unean aurpegian ostikada bat eman zion jokalariak, eta kolpe bortitzaren ondorioz konortea galdu zuen Iriondok. Mendaroko Ospitalean pasa zuen gaua, zaintzapean. Eraso hori gaitzetsi ostean, txapelketa bertan behera lagatzea erabaki zuten txapelketako antolatzaileek, Elgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek, eta parte hartzen ari ziren taldeek. "Aritz Iriondori eginiko erasoak gaitzesten dugu eta penatu egiten gaitu horrelako eraso batek kirolean laguntasuna eta errespetua moduko baloreak sustatzeko abian jarri genuen txapelketaren etorkizuna arriskuan jartzeak", azaldu dute antolatzaileek.

### Ekitaldia Unben

Martitzenean, Aritz Iriondo epaileari babesak eman eta berak jasandakoa moduko erasoek kirolean ez dutela lekuri salatzen ekitaldia egin zuten Eibarko Unbe futbol zelaietan, erasoak gertatu zuten lekuan. Elgoibarko Udaleko ordezkari Gorka Garaizabalek eta C.D. Elgoibarreko presidentea Antton Iranzok ere parte hartu zuten ekitaldian. Baita S.D. Eibarko zuzendaritzako kidea Leire Barriusok ere. Azken honek Eibarko futbol taldearen kamiseta bat oparitu zion Aritz Iriondori. C.D. Elgoibarreko jubenil taldeko jokalaria den Iriondok eskerrak eman zizkien ekitaldian parte hartu zuten lagun guztiei, eta erasoaren ostean babesak erakutsi dioten guztiak ere gogoan izan zituen emandako animo eta babesagatik.

## Entrenatzaile aldaketa Haundin, eta C.D. Elgoibarren batzar orokorra



Cristian Matias Levis argentinarrek urtarrean hartu zuen Haundi entrenatzaileko ardura.

C.D. Elgoibarrek jakinarazi duenez, Cristian Matias Levis argentinarrek Haundiko entrenatzaile izateari laga dio. Abendu amaieran kargutik kendu zuten Iker Dorronsoro ordezkatu zuen Matiasek urtariletik aurrera. Azken laugarren postuan amaitu du Haundik liga txapelketa Ohorezko Erregional mailan, eta asteburu honetan argituko da mailari eusten dion ala ez. Hiru euskal talde ari dira Bigarren B Mailarako igoera faseko azken kanporaketa jokatzen (Beasain, Alaves B eta C.D. Vitoria). Horieta bik igoera lortuz gero, eutsiko lioke mailari Haundik. C.D. Elgoibarrek urteko batzar nagusia egingo du ekainaren 29an, eguena, Kultur Etxeko hitzaldi gelan (19:00). Besteak beste, urteko balantze ekonomikoa eta kirol balantzea aurkeztuko ditu Antton Iranzo presidentek gidatzen duen zuzendaritzak.



## Bizikleta Festa antolatu du Elgoibarko Lagun Taldeak uztailaren 1erako

Elgoibarko Lagun Taldea txirrindularitza eskolak antolatuta, Bizikleta Festa egingo dute estreinakoz uztailaren 1ean. Sallobentera bizikleta irteera egingo dute lehenik, 11:00etan. Adin guztietako txirrinduzaleek parte hartu dezaketela nabarmendu dute. 12:00etan Ginkana egingo dute, 6 eta 14 urte bitarteko umeentzako. Antolatzaileek ohartarazi dute kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa izango dela. Ume eta helduegan txirrindularitzarako zaletasuna sustatu nahi dute aurrerantzean urtero egin nahi duten festa honekin.



## Maite Maiorak irabazi du Livigno Skymarathon proba, Italian



Livigno Skymarathon munduko zirkuituko mendi lasterketan gailendu da Maite Maiora Italian. Eta hori, amaierarako hamabi kilometroren faltan eroriko bat izan eta belaunean egin zuen zaurian sei puntu eman zizkieten arren, probaren amaieran. Zegama-Aizkorri mendi maratoia irabazi ostean, oso momentu onean eta gogotsu dago antxitxikari mendaroarra eta halaxe erakutsi zuen Italia aldean ere. Iaztik zuen buruan proba honetan parte hartzea. 34 kilometroko ibilbide tekniko eta zailari egin zioten aurre lasterkariek, 3.000 metroko gailurretatik gertu. Maiorak lau ordu, 37 minutu eta 30 segundo behar izan zituen helmugara ailegatzeko. Ia sei minutuko aldea atera zion bigarren egin zuen Denisa Dragomir errumaniarrari (4:43:21). Garaipen honi esker, YSF erakundeak antolatzen duen Skyrunning munduko zirkuituko lidergoan dago une honetan, 220 punturekin. Megan Kimmel estatubatuarra dago bigarren (164,8) eta Silvia Rampazzo italiarra hirugarren. Belaunaren egoerak onera egiten badu, Zumaiako Flysh Trail lasterketan parte hartuko du Maiorak domekan.

## Raketa Txapelketa egingo dute Mendaron

Emakumeentzako Mendaroko Bina-kako 6. Raketa txapelketa antolatu du Mendaroko Raketa Zaleak elkarteak, Udalaren laguntzarekin. Parte hartu nahi dutenek ekainaren 25a baino lehen eman behar dute izena, udaletxean edo honako telefono zenbakira deituta: 629 932 458.



## Sanlo festa eta Eskubaloi Eguna, denboraldiari agur esateko

Sanlo eskubaloi taldeak festa giroan esan dio agur denboraldiari aurtengoan ere. Bosgarren Eskubaloi Eguna eta Sanlo festak bat egin zuten ekainaren 17an. Goizean, Eskubaloi Egunaren barruan, eskubaloi partidak jokatu zituzten gaztetxoek Kalegoen Plazan eta Aita Agirre plazan. Eguerdian, berriz, 500 bat lagun inguru batu ziren Sanlo Festan. Sig-mako aparkaleku estalian bazkaldu zuten eta bazkalostean urteko jokalariei aipagarrienei oroigarriak banatu zizkieten.





## Kalegoen plaza bete zuten Celtas Cortos eta Udal Musika Bandaren kontzertuak



**K**alegoen plaza txiki geratu zen joan zen barixakuan, Celtas Cortos musika taldeak eta Elgoibarko Udal Musika Bandak elkarrekin eskaini zuten kontzertuan. Valladolideko taldearen abesti ezagunenak musika bandarekin joteko egokituta entzuteko aukera izan zuten plazan batu ziren ikusleek. *Contratiempos* diskoko abestiak jo zituzten hasieran, baina euren abesti ezagunenak ere ez ziren falta izan. Besteak beste, *20 de abril*, *Cuéntame un cuento* edo *Tranquilo majete* moduko kantak entzun ziren. Adin eta tipologia desberdinetako publikoa bildu zuen kontzertuak. Musika Bandak bigarren kontzertua zuen bere ohiko formatotik kanpora, eta herritarrek oraingoan ere ez zuten hutsik egin. Celtas Cortoseko taldekideek hasi zuten kontzertua, eta hiruzpalau abesti jo ostean igo ziren eszenatokira Elgoibarko Udal Musika Bandako kideak. Aurrerago Celtas Cortoseko abeslari Jesus Cifuentesek banan-banan aurkeztu zituen Bandako kide guztiak. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: [barren.eus](http://barren.eus)

## Sanmigeldarren eguna ospatu zuten zapatuan Aiastiako auzotarrek

Zapatuan ospatu zuten sanmigeldarren eguna Aiastian. Meza Nagusiarekin hasi zituzten ekitaldiak, eta ondoren, salda eta txorizoa banatu zituzten. Pilota partidak ere jokatu zituzten, eta eguerdian bazkaria egin zuten. Anaiarteko bazkari hori baliatu zuten auzotarrak omentzeko. Aurten lau lagun omendu dituzte: Angel Olasolo *Berdeskunde*, Justo Aranberri *Aisti*, Juan Astigrraga *Belartondo* eta Antonio Garagartza *Zumeta*. Arratsaldea dantza giroan pasatu zuten, Elustondo anai-arrebekin.







## Ehun Kilo taldeak kontzertua eskaini zuen domekan Mutrikun, taldea desegin zenetik hogeitaurtera

1997ko urrian eskaini zuen Ehun Kilo taldeak azken kontzertua Elgoibarko gaztetxean, eta hogeitaurteren ostean berriz elkartu da taldea. Domekan eman zuten itzulerako lehen kontzertua Mutrikuko gaztetxean. Itzulerara puntuala izango dela adierazi du Jon Zabala taldeko abeslariak. Hatortxu Rock jaialdiak 20 urte beteko ditu aurten, eta antolatzaileek han parte hartzeko eskatu diete. Domekako kontzertua Rock jaialdirako entsegua izan behar zen hasieran, baina azkenean jendaurreko entsegua izan zen. Uztailaren 22an, Mendaroko santanetan joko dute.



## Santanetako danborradako entseguak uztailaren 3an hasiko dira

Uztailaren 25ean egingo dute santanetako danborrada, eta uztailako astelehenean eta eguaztenean egingo dituzte entseguak. Lehenengo entsegua uztailaren 3an izango da, 21:00etan, Ikastolako patioan. Danborradan parte hartu nahi dutenek egun horretan eman beharko dute izena.

## Eguaztenean hasiko dira Idotorbeko San Pedro jaiak



Ekainaren 28an, San Pedro bezperan, hasiko dituzte jaiak Idotorben, txapligoekin eta kanpai jotzarekin. Hurrengo egunean, San Pedro egunean, meza, zaindariaren prozesioa, pilota partidak eta bazkaria izango dira auzoan, besteak beste. Asteburua iristearekin batera etorriko dira ekitaldi gehienak. Umeentzako zein helduentzako ekitaldiak prestatu dituzte, eta bakoitzak bere gustuko ekitaldietan parte hartzeko aukera izango du. Ez dira faltako besteak beste, Haritz dantza taldekoen dantza emanaldia, idi probak edota Euskadiko Enduro txapelketa. Egitarau osoa BARRENEko agendan duzue.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak zainduko nituzke.  
☎ 642 650 815 (Fran Orozco)

Umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez.  
☎ 654 304 337

Pertsona nagusiak zaintzen egingo nuke lan. Interna edo orduka. Gauak pasatzeko ere prest.  
☎ 631 417 922

Emakumea eskaintzen da, edozein lan egiteko.  
☎ 632 915 647

Adinekoak zainduko nituzke, interna.  
☎ 602 152 685

Nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Esperientzia daukat.  
☎ 602 490 595

Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko.  
☎ 665 205 505

Neska euskalduna eskaintzen da ospitalean gaixoak zaintzeko.  
☎ 688 639 371

Adinekoak zaintzeko, sukaldari laguntzaile aritzeko edo zerbitzari lanetarako prest nago.  
☎ 612 572 229

Adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago.  
☎ 612 533 866

Adinekoak zainduko nituzke, Elgoibarren edo Mendaron. Sukalde laguntzaile moduan esperientzia handia daukat.  
☎ 638 338 816

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna.  
☎ 661 025 434

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna.  
☎ 645 891 307

Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Interna moduan egoteko prest.  
☎ 666 324 757

Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna. Gidabaimena dut.  
☎ 689 571 882

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka.  
☎ 655 094 780

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Erreferentzia onak ditut, eta zortzi urteko esperientzia.  
☎ 638 857 100

Garbiketarako egiteko prest nago. Euskalduna naiz.  
☎ 617 571 210

Umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna.  
☎ 632 915 647

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia.  
☎ 699 535 728

Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, asteburuetan.  
☎ 699 535 728

Pertsona nagusiak zainduz egingo nuke lan, interna edo orduka.  
☎ 697 665 452

Nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Asteburuetan interna.  
☎ 633 072 144

Nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 631 418 130

Mutil gaztea adinekoak zaintzeko, elkarrekin garbitzeko eta baserrian lan egiteko prest.  
☎ 632 652 658

Garbiketarako egiteko prest nago. Euskalduna naiz, eta esperientzia daukat.  
☎ 626 490 986

Nagusiak edo haurrak zaintzeko prest nago, orduka. Asteburuetan interna.  
☎ 658 747 099 (Lucila)

**Eskaintzak**

Emakume euskalduna behar da adinekoak zaintzeko. Gidabaimena beharrezkoa.  
☎ 699 217 721 / 606 523 477

Pertsona nagusi bat zaintzeko emakumea behar dugu, interna. Paperak legez izatea beharrezkoa.  
☎ 669 339 529

**KINTOAK.....**

1957koen bazkaria uztailearen 1ean, Sigman. 13:00etan elkartuko dira Bolarokian, luntxa 14:00etan, eta gero, bazkaria. 55€ko sartu, ekainaren 28rako: 2095 5036 55 1074745950  
☎ 619 127 474 ( M<sup>o</sup> Jesus)  
☎ 662 173 220 ( Pili)

**LOKALAK.....**

Pedro Mugurutzan 180 m<sup>2</sup>ko lokala salgai. 30.000 euro. Berritzeko. Etxebizitza egiteko baimenarekin.  
☎ 667 528 134 / 676 087 537

**BESTELAKOAK.....**

Lursail edo baratza txiki bat erosi edo alokatuko nuke herriitik gertu.  
☎ 669 339 529

Belarhesiak moztzeko makina elektrikoa salgai. Gutxi erabilitakoa. 150 euro.  
☎ 667 406 490

Bilarra salgai.  
☎ 678 376 320 (Eli)



administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Buzas  
Euzkoako Buzas Administrazioen Kontseilua



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Zor duen hileko kuota ari gatzazkio erreklamatzeko gure komunitatean lokal jabe bati. Hainbat aldiz hitz egin ostean, adostasun batera iritsi gara bi aldeak, eta zordunak agindu du urtebeteko epean ordainduko duela zor duen diru kopuru hori. Jakin nahiko nuke komunitateak eskumenik ote duen zordunari zor duen diru guztia ordainketa bakarrean ordainarazteko. Izan ere, etxejabe batzuek ez daude konforme ordainketa horrenbeste atzeratzearekin.**

Komunitateak aukera dauka zor osoa aldi bakar batean ordaintzea exijitzeko, beti ere, bi aldeek ez baldin badute ordainketa sistema jakin bat adostu. Dena den, komunitate horretako jabe guztiek ez dute zertan onetsi bi aldeek adostutako ordainketa sistema.

Akordioek helburu bakarra dute: epaiketara jo beharra saihestea zordunari kuota ordain dezan exijitzeko edo hasitako auzibidea amaitzeko. Legeak dio komunitateko gastuak jabeekideen batzarraren adostutako moduan eta epeetan ordaindu behar direla. Bestela, presidenteak edo administratzaileak epaiketara jotzeko aukera izango luke, beti ere jabeekideen batzarrak hala adostuz gero.

**AHOLKUA: zor duen guztia ordaintzeko exijitu diezaiokete etxejabeen batzarrak zordunari, eta hark ordainduko ez balu, batzarrak aukera izango luke epaitegira jotzeko eta auzibidea hasteko.**





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Nora**, atzo urtetxo bat bete zenuelako. Muxu asko familiako guztien partez.



Zorionak, **Ander!** Etxekoen eta bereziki, asko maite zaituen Markelen partez. 6 urte, txapeldu!



Zorionak, **Nora**, 5 urte bete dituzulako. Muxu asko familiakoekin partez.




Zorionak, **Gorka**, bihar 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Irune**, astelehenean 5 urte egingo dituzulako. Muxu asko gurasoen eta Xabierren partez.




Zorionak, **Unax**, zigandean 7 urte beteko dituzulako. Artista! Muxu handi bat Amets, Ekain, Danel eta etxekoen partez.



Zorionak, **bikote!** Iritsi da zuen ezkontza eguna. Seguru primeran pasatuko dugula! Familiako guztien partetik, patxo pila bat.

### OSPAKIZUNAK: 1947ko Kintoak



Zorionak, **Sara**, astelehenean 2 urte egingo dituzulako. Gurasoen partez, muxu handi bat.



Ongi etorri, **Mikel eta June!** Muxu handi bat familiako guztien partez.



Oso ondo pasatu genuen 70 urtekoen bazkarian. Eskerrik asko antolatzaileei!



Zorionak, **Aimar eta Malen!** Larunbatean 9 urte! Ondo pasatu, eta muxu handi bat aitaxo eta amaxoren partez.

Jarri ezazu zure publizitatea  
**BARREN** astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

943 744 112



BARREN

Kalebarren plaza, 2  
20870 ELGOIBAR



Uzuri ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)



IGERIKETARAKO  
BETAURREKO GRADUATUAK **79€** tik hasita

## 23 BARIXAKUA

**Iluntzean** San Joan suak piztuko dituzte. Santa Ana kalean eta IMHn.

**22:00** Akerren desfilea, Mendaron. Ondoren, sua piztuko dute. Herriko Enparantzan.

## 24 ZAPATUA

**Azken zapatuko feria**

**9:00** Baserrietako produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

**11:00** Txosna irekiko dute.

**12:00** Kale Kantariak.

**Eguerditik aurrera**, ganadu erakusketa, Aita Agirre plazan.

**12:30** Alzheimer gaixotasuna ikustarazteko lasterketa Elgoibartik pasatuko da. Maalako errotodan.

**14:30** C.D. Elgoibarren denboraldi amaierako bazkaria. Maalako parkean.

## 28 EGUAZTENA

**19:00** Pintxo lehiaketa hasiko da, Elgoibarko tabernetan.

## 30 BARIXAKUA

**19:00** Nahaste Borraste. Kimetz elkarrekin antolatuta, Kalegoen plazan.

**19:00** BH Institutuko ikasleen diploma banaketa. Herriko Antzokian.

## SAN PEDRO JAIK IDOTORBEN

### 28 EGUAZTENA

**19:00** Jaien hasiera. Txapliguak eta kanpai jotzea.

### 29 EGUAZTENA

#### San Pedro Eguna

**11:00** Prozesioa eta meza nagusia.

**Ondoren**, salda eta txorizoa Armuetak, Goikoetxeak eta Zahatzuegik eskainita.

**12:30** Lagunak pilota elkarteak antolatutako partida.

**14:00** Auzotarren eta jubilatuen bazkaria. Egun guztian zehar Jon Ostolaza eta Lurturdio trikitilariak arituko dira.

### 30 BARIXAKUA

**21:00** Lagun arteko afaria San Pedro elkartearen.

**23:00** Mus txapelketa

### 1 ZAPATUA

**16:30** Umeentzako jolasak eta Russoren animaliak.

**20:00** Triki mendi-buelta.

**21:00** Lagun arteko afaria, San Pedro jatetxean. Izena emateko 943 740 010 telefonora deitu.

**21:30** Gaupasa, Iñaki Laja eta Andoni Larrañagarekin. Sorpresa.

### 2 DOMEKA

**10:45** Meza. Ondoren San Pedro elkarteak eskainitako salda eta txorizoa.

**Ondoren**, dantza Haritz EDT taldekoekin. (Auzoko umeak protagonista).

**13:00** Bolo txapelketa.

**17:30** Idi demak.

### 9 DOMEKA

#### Euskadiko Enduro Motor txapelketa

**8:30** Egiatzapenak frontoian.

**9:30** Lasterketa

**14:00** Sari banaketa.

# Ondo pasau jaixetan!

Aurrez enkargatuz gero, hobe!

## SAN PEDRO

J A T E T X E A

SAN PEDRO AUZOA

Tel. 943 740 010

ELGOIBAR





## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G  
U  
A  
R  
D  
I  
A  
K

09:00 - 22:00

23 Barixakua IBAÑEZ\*  
 24 Zapatua GARITAONANDIA  
 25 Domeka GARITAONANDIA  
 26 Astelehena ETXEBERRIA  
 27 Martitzena FERNANDEZ\*  
 28 Eguaztena YUDEGO  
 29 Eguena ORUESAGASTI\*  
 30 Barixakua BARRENETXEA

20:00 - 22:00

\* Guardia Elgoibartik kanpora  
 denean, asteburuetan ezik:  
 BARRENETXEA (Elgoibar)  
 Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)  
 San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533

\* Fernandez: Herriko enparantza 4,  
 Garagartza (Mendaro)  
 Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)  
 Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
 (Soraluze) Tel.: 943 751 384



I. URTEURRENA

## Jesus Mari Astigarraga Garate

"Katalo"

2016ko ekainaren 28an hil zen, 70 urte zituela.  
 Haren oroimenez, I. urteurreneko meza izango da,  
 eguaztenean, ekainak 28, 19:00etan  
 Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

**Beti izango zaitugu gogoan.**

Etxekoak



## Dolores Arakistain Salegi

"Millapros"

**Amatxo maitea, elkartu zara  
 zure bihotz erdiarekin.**

**Lau Izarren babespean geratzen gara gu.**

**Maite zaitugu**

2017ko ekainaren 14an hil zen, 80 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu  
 jasotako doluminak,  
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Iosu Juaristi

## Ainhoa Lendinez



Will Smith aktorearen bideo bat ekarri dit gogora argazki honek. Orain astebete egin nuen topo bideo horrekin sarean. "Beldurra" zeukan izena. Antza denez, lagunekin hegazkinetik jauzi egiteko hitzordua jarri zuen Smith-ek orain ez asko. Taberna giroan sortutako erronka omen zen, harrokeria puntu bat ere bazeukana. Egun hartan, begirik ezin bilduta igaro omen zuen gau osoa, beldurrak jota. Lagunen aurrean ausart agertuagatik, barrua dantzan zeukala gogoratzen du Smith-ek, eta hegazkinen atea ireki zenean ikaratuta zegoela. Sekula ez omen zuen halako beldurrik sentitu. Baina 3-2... eta 1 entzun orduko, airean omen zen. Ordura arteko beldur denak airean desagertu zitzaizkiola kontatzen du, eta bizitzako esperientzia liluragarriena bizi izan zuela. Beldurrek zenbat mugatzen gaituzten esatera dator Smith bideo horretan, eta beldurrengatik zenbat sufritzen dugun, are gertatu ez diren gauzengatik. Ildo beretik, Eduard Punseti behin entzun nion zoriontasunaren gakoa beldurrik eza dela. Baina nola da posible hori? Beldurrean hezten gaituzte eta: beldurra sudurrean belarritakoa jartzeko, homosexualak garela esateko, abortatzeko, banantzeko, lana uzteko, ilea mozteko. Beldurra albokoari huts egiteko, gugandik espero dena ez emateko, ezberdina izateko. Beldurra kalera bakarrik ateratzeko, minigona janzteko, pentsatzen duguna esan eta idazteko. Beldurra geu izateko. Horrela hezten gaitu gizarteak, eta horrela sinetsarazten digute zoriontasuna. Lagun bihotzeko batek hauxe esan dit orain gutxi: *loramen, zaharra zarenean, atzera begiratu eta, zer ikusi nahi duzu: beldurrengatik zenbat aldiz itxi duzun hegazkinaren atea? Ala zenbat aldiz izan zaren zoriontsu, hegan? Zoriontsu izateko bizi naiz ordutik.*

*"Beldurrek zenbat mugatzen gaituzten esatera dator Smith bideo horretan"*





**Elgoibar BHI**

[www.elgoibarbhi.eus](http://www.elgoibarbhi.eus)

**2017-2018 IKASTURTEA**  
**DBHko eta BATXILERGOKo**  
**matrikulazio epea**

**Ekainaren 20tik**  
**uztailaren 6ra**

**Bulegoko ordutegia:**  
**09:00etatik 13:00etara**

**DBH eta BATXILERGOA**

**Giza eta gizarte zientziak**

- Gizarte zientziak
- Humanitateak

**Zientziak**

- Osasun Zientziak
- Zientziak eta teknika

**Artea**

- Artistiko musikala

943 748 397  
013431@hezkuntza.net  
[www.elgoibarbhi.eus](http://www.elgoibarbhi.eus)

**notavello**

fotodepilazioa tarifa finkoan

**Elgoibar**

Bernardo Ezenarro, 2  
20870 - ELGOIBAR

Tel. 843 630 011

[elgoibar@nomasvello.com](mailto:elgoibar@nomasvello.com)

[www.nomasvello.com](http://www.nomasvello.com)







# LASA jatetxea



"Mas Gastronomía" sariaren irabazlea 2009an,  
BANKETEETAKO GIPIZKOAKO JATETXE ONENA sailean.  
Era guztietako banketeak ospatzeko toki bikaina

**Ozaeta Jauregia- BERGARA**

**TEL. 943 761 055 - Fax.: 943 762 029**

**[www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)**